




# ZE BARRI?



URLATIK • LANDETARA

12.Alea 1997ko Iraila



- GATZAGAKO ANDRAMAIXAK
- LUIS MARI PARROKOARI AGURRA
- OPORRETAKO POSTALAK IKUSGAI

# LEINTZ BAILARAK 500 URTE BETE DITU GIPUZKOAN



**BEHARREZKO TELEFONOAK**

Eskoriatza

- Udaletxea 714407
- Udal Bulegoak 714532
- Udaltzaingoa 714407
- Euskaltegia 792168
- Kultur-Etxea 714688
- Gizarte-Laguntzailea 714688
- Kiroletxea 715328
- Liburutegia 714688
- Luis Eceiza 714938
- Jose Arana-Almen Ikastola 714486
- Almen 714964
- Museo-Eskola 714688
- Ze Barri 714077
- Talde Antimilitarista 715028
- Irakasle Eskola 714157
- Osakidetza 714452
- Telesko 714917
- Taxia 714059'

Bestelakoak

- Eskualde-Ospital (Arrasate) 795300
- Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
- Ertzaintza (Arrasate) 797199
- Suhiltzaileak (Oñati) 792800
- Renfe (Zumarraga) 721515
- Renfe (Gasteiz) (945) 232030
- Pesa (Arrasate) 791419
- Larrialdiak (Arrasate) 771043
- SOS Deiak 088

**ZE BARRI?**

**Argitaratzailea:**  
**AXTROKI KULTUR ELKARTEA**

**Erredakzio kontseilua:** Joseba Rielo, Josu Azkarate, Garikoitz Kortazar, Andoni Bengoa, Lorea Agiriano.

**Zuzentzaileak:** M.ª Carmen Arrieta, M.ª Jesus Umeriz, Karmele Agirregabiria.

**Inprimategia:** Eguzkigraf, Koop. Elk.

**Tirada:** 1.500 ale

"ZE BARRI? aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin"

**EDORTA BARANDIARAN GARCIA**

**Psikologian lizentziatua eta tabernaria**

**1-Noiz bukatu duzu karrera?**

Ekainean amaitu nuen.

**2-Zenbat urtean eta non ikasi duzu?**

Bost urte behar izan ditut lizentziatura ateratzeko. Donostian egin dut karrera.

**3-Nola dago lanpostua lortzeko?**

Psikologo bezala lana aurkitzea oso zaila da.

**4-Zerbait gehiago ikasiko duzu, masterren bat...?**

Udazkenerako behar dudun dirua lortzen badut, kirol psikologiako master bat egitea gustatuko litzaidake.

**5-Ze tabernatan egiten duzu lan?**

Aldatz tabernan.

**6-Nolakoak gara Eskoitzarrak tabernan?**

Elementu batzuk aparte, jende gehiena jatorra da.

**7-Zer edaten da gehiago?**

Uda partean, adibidez, garagardoa, koka kola, zerkasa eta kafea izotzarekin.

**8-Zertan erabiltzen duzu zure aisialdia?**

Txakurrarekin paseatzen, irakurtzen eta lagunekin poteatzen.

**9-Zer aldaketa egingo zenuke alkatea bazina?**

Ekintza kulturak ( antzerkia, zinema, hitzaldiak, kontzertuak... ) ; astebukaeretan herria hilda dago eta.







**10-Zer iruditzen zaizu ZE BARRI aldizkaria?**

Euskararen alde ideia polita dela iruditzen zait. Eutsi gogor!!



**1- Ze moduz eta non egon zara oporretan?**

**2- Buelta gogorra egin al zaizu?**

	<p>Haritz Zubia Ikaslea</p> <p>1--Rosasen ( Costa Brava ), 12 egun egon naiz eta Lekeitioko jaietan. Oso, oso ondo, larreiko ondo.</p> <p>2--Oso, oso gogorra, aldaketa fuertia izan da.</p>		<p>Nere Gorosarri Ikaslea</p> <p>1--Lekeition, opor lasaiak, hondartzan....</p> <p>2--Bai, berriro klasera joan behar da.</p>
	<p>Nagore Barandiaran Ikaslea</p> <p>1--Hemen eta lanean, baina ondo egon naiz.</p> <p>2--Ez naiz joan baina eskolara bueltatzea ez zait ondo iruditzen.</p>		<p>Marta Guirao Ikaslea</p> <p>1--Ondo egon naiz baina hemen geratu naiz lanean.</p> <p>2--Gogorra ez. Hemendik ez naiz mobitu eta.</p>
	<p>Jon Urrutia Ikaslea</p> <p>1--Ondo, Segovian eta Saloun, denbora oso ona eduki nuen.</p> <p>2--Ez asko, bakarrik egon nintzelako.</p>		<p>Ivan Martinez Ikaslea</p> <p>1--Ondo, Quintana eta Andalucian egon naiz.</p> <p>2--Bai, oso gogorra.</p>

Cuenta Joven  
de Caja Laboral  
El servicio  
más completo.

**Euskadiko Kutzaren  
Kontu Gaztea.  
Zerbitzuetan  
osatuena.**

  
**CAJA LABORAL**  
EUSKADIKO KUTXA



  
**LENIZ**  
ESKORIATZA

Aingeru Ibiltokia, z/g.  
Tfnoa.: 715061

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA  
**REPARACIONES LENIZ, C.B.**




MAXIAMAR **POSTALAK**



✉ Peilo Sologaitziak Kanadatik bildalitakoa. Hilabete egin du ingelesa ikasten.

SPICE PEOPLE kuadrilak ere bidali digu bere postala Gironako Roses herritik. ✉

✉ Iñigo Altuna eta Andoni Bengoak Malaga aldetik bidalitakoa. Ez direla asto gainekoak zehaztu digute.




Ander Zabalak Londres eta ✉ Dublinetik idatzitako postaletan gorantziak bidali dizkigu guztioi.



ZANPANTZAR

✉ Josu Azkaratek Iturengo barnetegitik bidalitakoa.



**A & B**  
aholkulariak

**LEGEZKOA  
FISKALA  
KONTULARIA  
LABORALA  
LAGUN-ARO ASEGURUAK**

**ALDETEC**



----- **TASAZIOAK**  
----- **PERITAZIOAK**  
----- **PROIEKTU ING.**  
----- **OBRA ZUZENDARITZAK**  
----- **ERREFORMAK**

Gastañadui, 7  
Tel.-Fax. 71 54 36

20540 **ESKORIATZA**  
(Gipuzkoa)

Tel.: 908 - 77 41 33 Tel.-Fax 71 54 36 **20540 ESKORIATZA**

Gastañadui, 7 - bajo



## ANDRAMAIXAK

Andramaixak joan jakuz, eta berarekin eguneroko lanera bueltau biherra. Raflen kanpai soinuak datorren urterarte itxoin biheko daue jaixan etorreraren berri emuteko.

Gatzako jaixak, nobenie izeten daue jai bezperetako ardatz. Aurten be hasieran jendez gutxitxuau eta zenbat eta Amabirgin eguna gertuau orduan eta gehixau Dorletako Amak han izan zittuen bere jarraitzaile zintzuak. Orain, zintzuenak, nobenaren akaberan agertzen jakoz, gaztaia eta ardaia duan banatzen zien egunian. Orduan bai, Eskoitzan nobenia kalia jarraiketan dauenak be, egun hortan goixan ikusi gittuen. Zer eingo dutzau ba? Amabirginak danak hartzen dittu gogo onez bere onduan.

Ez die egualdi aldetik oso luziruak izen ez. Egualdixe, oso narrasa ein dusku: geixenetan lainua eta askotan lanparra eta eurixa mobiru dutzo. Orain, hori bai eh, Amabirgina egunian mundiala. Umoria etxaku falta izan. Zapatu-domekan izan zien izetekuak gabeko kontuak. Oso jente dantzarixa eta oso alegria daukou.

Dantza Gatzan baino hobeto egiten dan lekurik, kostauko jatzue topetia. Hola ba zapatuan "trabukuak" eskeini euskuen berbenia tope-topera egon zan.

Umiak hiru tartetxo euki euen berezixak: zapatuko bolo txapelketia, paiasuak domekan eta puzgarrixak astelehenian. Bolo txapelketia mundiala izan zan 0-4 urteko kategorixan Beñat txapelkun, 5-12 urteketan Lur, 13-16 urtekoetan Maider. Paiasuakin, oso ondo pasau euen. Datorren urterako barrakatxo bat eskatzeko esan dustie. Aldapan baten jarri biheko dittuau. Hau da herri demoniua, ezin lautadaik topau!

Euskal Herriko goitibera liga 97ko ekitaldixua be Gatzan ospatu zan, abuztuko azken egunian. Ederto egon zan, jende ugari, emozinua haundixa batez be goiko kurbetan. Herriko bikotiak, Goioñakik laugarren bukatu euen.

Bestela, herri-bazkarixa, pelota partiduak, txarangak eta Otxandixarren eguna urtero letxe oso ondo joan zien.

## Ongi etorri euskarara!

Ongi etorri Leintz Udal Euskaltegira!

### 1997-98 IKASTURTEKO EUSKARA IKASTAROAK

#### Eskaintza

EUSKALDUNTZE, ALFABETATZE eta EGA  
maila guztiak

#### Ikastaro bereziak

Merkatari, langile eta gurasoei egokitutakoak

#### Erritmo ezberdinak

Ordutegi zabala  
Bekatz sistema  
16 urtetik gorakoentzat

#### Bulego ordutegia

Goizez: 09.00-12.30 / Arratsaldez: 15.00-19.00


#### Matrikulaldia

Irailaren 1etik 22ra arte

### LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA

Durana, 11  
ARETXABALETA  
Tel.: 79 21 68


Fernando Enparantza  
ESKORIATZA



UDAL  
EUSKALTEGIAK



# GATZAGAKO GOITIBEHERA JAITSIERA




Abuztuak 31an Gatzagako goitibehera jeitsiera jokatu zen. Argazkietan ikus ditzakegu partaideetako bi.

"Tiburoia" aurtengo Gatzagako jeitsierako txapeldu-nak dira.. Esan digutenez inguruko beste proba batzuetan ere hauek ibiltzen ei dira

aurretik, San Juanetan adibidez irabazi egin zuten. Aipagarria da gidariak 65 urte dituela, ez dauka meritu makala gero!

"Arraina" Aner eta Danel arrasatearrek gidatzen dute. Goitibeherak oso diseinu originala dauka, isats eta guzti. Hauek proba irabaztea baino ikuskizuna ematea dute helburu.



Goitibehera jeitsierek arrakasta itzela berreskuratu dute azken asteotan. Geroz eta jende gehiago hartzen du parte proba hauetan eta baita goitibehera biziagoak egin ere. Euskal herri osotik etortzen da jendea parte hartzera, hala, aurtan iparraldetik ere zaletu ugari hurbildu zaigu.

## BENTA-MOTZ

Gaztañadui kalea  
Tfnoa.: 714822

GOIZEKO 6ETAN ZABALIK

EGUNEROKO MENUA 900 PTA.

## CENTRO ÓPTICO ESKORATZA

Eduardo Gorosarri  
Plaza, 1 bajo  
Tf 71 52 82



## TOKI ALAI

Taberna  
Tfnoa.: 714729

KARAJILOETAN  
ESPEZIALIZATUA



**DORLETA**

Aranburuzabala, 22 -bajo  
Tfnoa.: 71 51 20



# 1497-1997: Leintz Bailarak 500 urte Gipuzkoan



*Aretxabaletako Udaletxe zaharreko armarrria, gaur egun Udal euskaltegia. Bertan, Gaztela, Leon, Gipuzkoa eta Leintz Bailarako armarrriak elkarturik azaltzen dira, Hausburgotarren arranoaren babesean.*

**O**rain dela 500 urte, 1497ko irailaren 16an, Gipuzkoako Batzar Nagusiak bidalitako bi komisarioek, Leintz Bailarako mugarren azterketa zertu ondoren, Gipuzkoako Hermandadeari egindako azken atxikimenduak jaso zituzten. Horrela amaitu zen Leintz Bailarak Gipuzkoan sartzeko eragindako prozesua. Prozesu hau, bestalde, leintztarrek helburu nagusizat zuten ekintzarekin lotu behar du, Gebaratarren menpetik ateratzeko borroka luzearekin, alegia.

## Leintz Bailara Gebaratarren menpe (1370-1556)

Latza eta luzea du gu gure arbasoek orain dela 500 urte burutu zuten bidea. Izan ere, Gipuzkoako Hermandadea ehun urte lehenago, 1397ko uztailaren 6an, eratu zen, baina Gaztelako errege Enrike II.ak 1370ean gure Bailara (egungo Eskoriatza eta Aretxabaletako udalerrriak eta Bedoña auzoa) Beltran de Guevara-ri utzi ziola eta, leintzarrak Gipuzkoako Hermandadetik kanpo gelditu ziren.

Gebarako jauntxoekiko zuten menpekotasun egoera hau izango da, hain zuzen,

leintztarrek Gipuzkoako Hermandadean sartzeko aurkituko duten oztoporik haundiena. Ez du gu ahaztu behar Hermandadea Gipuzkoako hiribilduek sortutako erakundea zela eta XV. mende odoltsu hartan (gogoan izan Oinaz eta Ganboatarren arteko borrokak) Ahaide Nagusien gehiegikeri eta bidegabekeriei aurre egitea eta, aldi berean, monarkiaren interesak defendatzea zituela helburu. Horrexegatik, garbi ikusi zuten leintztarrek Hermandadean sartzek Gebaratarren mendetik askatzea ekar lezakeela. Baina Gebaratarrak, garai hartan inguruko noblerik nagusienak, gogor eutsi zioten 1370. urtean Gaztelako erregearengandik jasotako mesedeari. Egoera honen ondorioz, Leintz Bailara ez da 1556ko irailaren 16ra arte Gebaratarrengandik askatuko.

## Leintzarren ahaleginak eta arrazoiak

Bide honetan asko izan ziren Leintz Bailarak Gipuzkoan sartzeko egindako ahaleginak. Baina, Ahaide Nagusien indarkeria batzuetan eta beste batzuetan erregearen ahulezia edo Hermandadearen zalantzak (1477an Gebaratarrek Leintz Bailara Arabako Hermandadeetan sartu zutelako, Gipuzkoako Batzar Nagusiak ez zuen leintzarren eskaera onartu) zirela eta, 1497ko apirilaren 29ra arte ez zuen Gipuzkoako Batzar Nagusiak leintztarrek hainbeste aldiz eskatutakoa onartu. Aipatutako egun horretan Usarragako Batzar Berezian bildutako prokuradoreek ontzat jo zituzten Leintz Bailaren ordezkarien argudioak eta Hermandadearen arautegia eman zieten


# IRENE-NA

Tfnoa.: 715078

AHALEGINTZEN GARA

Argitaralpen honen edizioko laguntzaile

En la edición de esta publicación colabora

 **kutxa** fundazioa  
fundación



leintztarrek Probintzian sartzeko zer egin behar zuten jakin zezaten.


Gure Bailarak erabilitako arrazoiei dagokienez, hiru izan zirela esan daiteke: lehena, Leintz Bailara gaizkileen babesleku ezagunak ziren Oñati eta Aramaio lurralde pribilejiatuen artean kokaturik egotea; bigarrena, legez Gipuzkoako eta ez Arabako Hermandadeetako partaide izatea, 1477an Probintziako Batzar Nagusiak, Oñatiko kontea zen Iñigo de Gevara-ren aurka joanez, Leintz Bailara eta Gatzaga Gipuzkoako Hermandadean hartu baitzituen; eta hirugarrena, garrantzitsuena, Gaztelako erregeek emandako aginduak.

Arazoi hauek kontutan harturik Gipuzkoako Batzar Nagusiak, Errege Katolikoaren aginduei jarraituz, onartu egin zuten leintztarren eskaera eta Bailarak bete beharko zituen arauak eman zizkien Leintzeko ordezkariari, hauen hurrengo egin beharrak leintztar guztiei arautegi horren kapituluak azaltzea eta Gipuzkoarekin hitzarmena sinatzeko beraien onarpena lortzea izanik.

**Azken urratsak: Erregeen agindutik Bailarako mugarrien ikustaldira**

Lan erraza zirudien azken honek, baina ez zen horrela suertatu. Izan ere, Leintzeko prokuradoreak Gipuzkoako Batzar Nagusiekin adostaturako arautegia Batzarrean ziren leintztarrei azaltzen zebiltzala, Oñatiko kontearen edo Bailarako Ahaide Nagusi batzuren aldeko hogeiren bat lagun azaldu omen ziren bildutakoak Hermandadearen aurka altxarazteko asmoz. Gipuzkoako Batzar Nagusiak ez zuen denbora alferrik galdu nahi eta Errege Katolikoengana jo zuen. Hau horrela, Erregeek idatzi erabakikorra bidali zieten leintztarrei Gipuzkoako Hermandadean lehenbailehen sar zitezen aginduz.

Azken arazo hauek gainditu ondoren, 1497ko abuztuaren 25ean egin zen Bailararen Batzarra Aretxabaletako Plazan. Batzar honetan Bailarako Prokuradore Nagusia zen Juan Lopez de Galarzak Erregeen aginteak eta Hermandadearen arautegia betetzea eskatu zien bildutakoiei. Hala gertatu zen. 1497ko abuztu eta irailean zehar leintztarrek baietz esan zioten



1497ko apirilaren 17an Donostian eginiko Gipuzkoako Batzar Nagusiko aktaren hasiera

**Gaztelako errege Enrike II.ak 1370ean gure Bailara (egungo Eskoriatza eta Aretxabaletako udalerrriak eta Bedoña) Beltran de Guevara-ri utzi zion**

Prokuradore Nagusiak eskatutakoari, betekizun horretarako Gipuzkoako Batzar Nagusiak Bailarara bidalitako bi komisarioen aurrean zin eginez. 257 izenabizenak azaltzen dira ekintza hau jasotzen duen agirian, eta izen horiekin batera Bailarako auzoak, elizateak (egungo Areantza, "parrochia de Çalgo" izenaz azaltzen da), baserriak eta ogibide batzuk ere bai: errementari (5), zapatagin (7), harakin (2), eskribau (3), bizargin (4), jostun (2), tormulari (1), ehungile (1), arotza (1).

Prozesu burokratiko honen azken urratsak 1497ko irailean eman ziren: Hileko 14an Pedro de Sardaneta, Mendiola elizatekoa, Hermandadeko Alkate (Epaile) izendatu zuten Batzar Nagusiko komisarioek. Probintziarekin hitzartutako agiriaren arabera Leintz Bailarak eta Gatzagak eremu judizial bakarra osatuko dute, Hermandadeko Alkate berbera edukiz (bi urtez jarraian Bailarak izendatuko du eta hirugarren urtean Gatzagak).

Hurrengo bi egunetan, 1497ko irailaren 15 eta 16an, Batzar Nagusiko komisarioek eta Leintzeko ordezkariak

Bailararen mugarriak ikuskatu zituzten, beharrezkoa baitzen hermandadeko Alkatearen jardunalea ondo zehaztea. Ikustaldia Bailararen ekialdetik mendebaldera zertu zen: Ostorro gainetik Aumamendira eta handik, Andarto, Linatza eta Gorordomenditik zehar Andramarizurira abiatu ziren ikuskariak; gero, Bedoñatik, Deba ibaia zeharkatuz, Untzillarantz joteko, hemendik Aramaioko mugatik Ostorora itzuliz.

Esan bezala, 1497ko irailaren 16an Batzar Nagusiaren ordezkariak amaiera eman zioten beren egitekoari. Gipuzkoan onartua, gure bailara prest egongo da beste auzi luze bati aurre egiteko: urte bereko uztailaren 21ean Juan de Galarzak, Bailarako Prokuradoreak, demanda bat aurkeztuko du Valladolideko kantzelaritzan "Oñatiko kontea eta Leintz Bailarako Jauna" tituluak zituen On Iñigo de Gevara-ren aurka, gure Bailaran zuen eskumena legez kontrakoa zela salatuz.



## Apaiz aldaketa Eskoriatzan

Hilabete honetan herrian eman den gertakizun garrantzitsu bat, nola ez, apaiz aldaketarena izan da. Luis Mari Seguiolak, oraintsu arte herriko parrokoa izan denak, bederatzi urte bazeramatzan jada gure artean eta horrenbestez bere apaiz bideari jarraitu beharrean aurkitu da oraingoan. Ze

barri?-ko kideok solasaldi atsegin batean bere inpresioen berri jakiteko aukera izan genuen, hau da, herriaren zerbitzuan egon den denboran jasotako sentazioak ezagutzeko aukera izan genuen. Herriak eman dion babes eta adiskidetasuna beti ere onuragarri izan zaizkio zituen asmo eta ideiak gauzatzeko. Gainera, bera ere eskoriatzar egin dela aitortu zigun eta horregatik gatxa egiten zitzaiola hemendik alde egitea: "Eskoriatzaren zati bat badaramat nik bihotzean. Uste dut poliki-poliki ni neu ere bertako egin naizela". Urteak ez dira ez alferrik joaten.

Horrenbeste urte eta gero patuaren erabakiz edo, Zumarragara, bere jaioterrira itzuli da Luis Mari hango parroko izateko. Eskoriatzan izandako esperientzia aberasgarria gerta dakiokela uste dugu, gauza anitz egin baitu herri honen alde. Kristau taldeak, karitas, behartsuen aldeko ekintzak, gazteen katekesiak... guzti hauek aurrera eramaten saiatzeaz aparte, San Pedro eliza altxor bat bailitzan zaintzen saiatu da: "Hemen egon naizen denboran aldaketa batzu egon dira bai, hala nola; San Pedro elizaren eraberritzea, dorrearen konponketa, erloju berria ere ezarri zaio elizari, eta eliz inguruak berriz txukun-txukun ipini dira. Elizari edozertan laguntzeko orduan herriaren aldetik oso erantzun ona izan dut, eta hori oso garrantzitsua da apaiz batentzat. Gainera herri honetan jende multzo handia mugitzen da elizaren inguruan eta laguntza hori eskertzekoa da".

Hilaren 14an eman zuen azken meza, eta Luis Mari agurtzera jendetza handia bertaratu zen gainera.



Izan ere, eskertzekoa da herri honekiko izan duen begirunea eta adeitasuna. Aurreko ostegunean, arratsaldeko 8etan San Viatorren luntxa egon zen eta 60 bat lagun bildu ziren bertan. Ondoren dantzaldia ere izan zuten.

Orain berriz, Azkoitiako semea den Xabier Gomez dugu Eskoriatzako parroko berria. Gaztea den arren Elgoibarren hiru urtez egon da apaiz. Ze barri?-kuok ez dugu oraindik parroko berriaz barriketalditxo bat edukitzeko aukerarik izan, baina irrikatzen gaude Xabierren lehen inpresioak ere papereratzeko. Besterik ezean, ongi etorria izan zaitezela Eskoriatzarron artera!

**SERVICIOS DE LIMPIEZA**

- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

**Zuri Garbiketak**

Tfnoa-Faxa: 714845  
**ESKORIATZA**

**MIRENTXU  
TABERNA**

Tfnoa.: 714167

*Kafe goxoa hartzeko*

**ESKO Sport**

txandak  
zapatilak  
mendiko botak  
aerobic  
futbola  
txirrindua

Intxaurtueta 5  
20540 Eskoriatza  
Tel. 71 52 96



**HARREMANAK**

Animalien ongizateak kezkatzen bazaitu eta talde animalista batean parte hartu nahi baduzu, jarri harremanetan ATEArekikin (Animaliei Tratu Etikoa ematearen aldeko Elkartearekin)  
Gasteizko 334 posta-kutxatilan edo-ta (945) 13 60 35 eta (945) 12 05 48 telefonoetan.

- **MARITXU KAJOI** Arrasaten urriaren 3an
- **KILOMETROAK** Lezo eta Pasaian urriaren 5ean
- **SAN MIGELAK** : Apotzaga eta Bolbarren. Apotzagan larunbatean bertso afaria dago Mañukorta eta Lopategirekin.

**GAZTE AGENDA****BEKAK**

"Lankidetzak Iberoameriketarako Institutuak" ikusentzuneke sorkuntzak bultzatzeko 10 beka aurrikusi ditu. Epea: urriak 10.  
97-98 ikasturtean unibertsitate mailako eta goi mailako beste ikasketak batzuk egiteko beka, deialdi orokorra. Oinarriak Arrasateko Gazte Bulegoan eskura daitzek. Epea: urriak 15.  
"CSIC-EFE" k, kazetaritza zientifikoaren arloan lan egiteko 2 beka aurrikusi ditu. Epea: urriak 15.  
Kirol zientzietako Zentru Nazionalen graduosteko prestakuntza beka, hezkuntza fisikoan lizentziatuei zuzenduak. Epea: urriak 19.  
Juan March Institutoan Gizarte Zientzietako goi ikasketak burutzeko beka, 94 urtetik aurrera lizentziatura ikasketak bukatu dituztenei zuzenduak. Epea: abenduak 18.

**LANA**

Nafarroako Herri Unibertsitateak liburutegiko zuzendariorde bat behar du. Epea: urriak 1.  
Bergarako Udalak, osotasun laguntzaile tekniko baten premia du. Epea: urriak 2.  
Nafarroako Parlamentuak dokumentalista bat behar du. Epea: urriak 12.  
Getxoko Jesusen Bihotza Udal Erresidentzian, laguntza ardurdun bat eta administrari bat behar dituzte. Epea: urriak 24.  
Bilboko Udalak: geografia informatikako sistemaren administratzaile lanpostu bat bete nahi du. Epea. BOEn argitaratu zain geratzen da.  
Ordiziako Udalak, ATS eta gizarte eta kultura animatzailea. Epea: BOEn argitaratu zain.

**JAIOTZAK**

- **ABUZTUAREN 3AN MARIA ISABEL OTXOA MELGAR**
- **ABUZTUAREN 7AN ENARA MARKAIDE CARRASCO**
- **ABUZTUAREN 25EAN DANEL BELOKI ABASOLO**
- **ABUZTUAREN 28AN NEREA BASTARDO GORDEJUOLA**
- **IRAILAREN 9AN ANDER BADIOLA DE LA CRUZ**

**EZKONTZAK**


- **JULIAN CARMONA SANCHEZ** (ESKORIATZA) ETA **MIREN JOSUNE ERAÑA AZKARRAGA** (ESKORIATZA) 1997KO UZTAILAREN 31N APOTZAGAN.
- **KARMELO IBABE ARKAUZ** (ARETXABALETA) ETA **SILVIA GASSO MONTESINOS** (BARTZELONA) 1997KO IRAILAREN 15EAN APOTZAGAN.

**LIBURU GOMENDIOA.**

Ikasturte hasi berri honetan liburu ugari hartu beharrean izango gara gutako zenbaitzu, zein baino zein astunagoak gainera. Guk zama hori arintzearen eta bide batez, irudimenaren mundu zabal horretan murgilduz bestelako kezak alboratu ditzazun, honako liburu gomendioa luzatzen dizugu:

**Badena dena da**

Patxi Zabaletak, Leitzarra izanik, berak berezkoa duen euskera jatorrean idatzitako denbora pasarako eleberri proposa duzu honakoa. Bertan, 1936ko guda lehertzean Erribera aldeko euskaldunek bititako giro nahasia kontatzen du, non lurjabe eta jauntxoek Jainkoa eta Erljioa ezpainen, mehatxu egingo dioten herriari. Askatasun nahiaren aurrean izua gailenduko da eta ondorioz, ustez adiskide direnen artean etsaiak agertuko. Beñat Mandazen eta honen ingurukoek, "Lurra eta Askatasuna" lemapean, tentu haundiz ibili beharko dute gudua antolatzen urkoaren hatzaparretan erori nahi ez baldin badute.

**AZOKA:**

- Renault 5 (SS-P)-a salgai. Deitu telefono hauetara: 779330-798135
- Irailetik aurrera neska bat pentsio osoan hatuko duen familia behar da. Ikaslea 797473

**Ze Barri?n informaziorik argitaratu nahi baduzu, utzi Kultur Etxeko buzoian, Ze Barri?rako dela zehaztuz.**



**PASEOA**

RADARretik gora doan trenbide zaharreko zatia konpontzen ari dira. Argazkietan ikus daitekeenez txukun asko gelditzen ari da oinez ibilialditxo bat egiteko.

**AKANPADA**


Hilabete hau gogorra izan da duda barik, lanera bueltetie latza eitten da ta, baina hile hontako Ze Barri?-xe udan igaro genittuen momentu polittek gogoratzeko aprobetxatuko dou, eta uda hasieran Alabitan ein zan akanpadako argazki pare bat jarri



dittugu zenbaki hontan, honeik be edarto pasau euiela ikusi daizuen. Hiru egunez egon zien 60 neska-mutiko inguru paregabe hartan, ta hainbat jolas eta mendi irteera ein zittuzten bertan. Orain, eskolie hasitxe dala, honeik be hasperenka ibiliko die egun hareik gogoratzuz.

**KUTXADURA DEBA IBAIAN**

Ez da lehenengo aldia gure Deba ibaia argazkian ikusten den moduan etortzen dena. Argazki hau uztaillean ateratakoa den arren, zoritxarrez sari aurkitzen dugu ibaia ura ekarri beharrean produktu kimikoak dakarrela. Alpera izango da depuradorak jartzea horrelako ur isuriak onartzen ditugun bitartean. Ibaiak arrainik balu zigortuko lirakeen ekintzak izanda, ekintza bera ez da barkagarriagoa ibaia berez hilda dagoelako. Gero hondartzara goazenean uretan gabiltzala pentsatuko dugu, baina... bai zera!.





**ARRASATE IRRATIA**

Seguraski askok ezagutuko ditzuzue oin artien Arrasate Irratixen egondako bi eskoriatzarren ahotsak, Aitziber Aranburuzabala eta Nerea Zubieterenak hain zuzen. Ba irailetik aurrera eskoriatzar irrati-esatarien listan beste bat daukou; izen be, Nerea Zubieteri kontratua bukatu jakola ta, nor eta Garikoitz Kortazarrek lortu euen lanpostua Arrasate Irratian. Hortxe dabil oin, zelabaitx goixeko albistegixetan Deba Garai osuen gertatutakuen barri emuten. Garikoitz gainera, “Ze Barri?”n idazten dauenetakue dogu. Beraz, badakituzue, Aitziber eta Gari entzun gure badittuzue, bilatu Arrasate Irratia 107.7 an.

**IRITZIA**

**ZURE IRITZIA ZE BARRI?n AGERTU NAHI BADUZU,  
UTZI KULTUR ETXeko BUZOIAN**

**BADATORRELA AUTOPISTIE**

*...eta antza danez, Eskoriatzan nahiko gertutik pasau biher jaku. Horrela izan biherko da, teknikuek esaten dauien lez, trazauek bere malda, kurbetako radixuek, elkartzeta eta lotura-une eta abarrekeuek toki konkretu baterik pasetara agintzen dutzielako.*

*Eta gure irentsi egin biher!!! Baina..., bestela ahal izango balitz? Diru-problema izango ote?*

*Hor daukou Etxezarreta; kontu handiz zaindu biherreko ingurune horretatik pasau biher zala, eta tuneletik pasau biher daue. Eskoriatza ez ote da izango “kontu handiz zaindu biherreko” herri bat? Dirudienez ez. Eta kejatzen ez garenez...*

*Hala be, Etxezarretako haritzen beste bagarela uste dot. Orduen, non ote hirugarren belaunaldiko deritzoten autopistie, ezin bagaitu babestu gure bizitzarako hain kaltegarri suertauko diren zarata, ke eta abarretatik? Non ote da gure Udaletxie gure eskubidiek babesteko? Ez ote dau ezer ein biher? Beste hainbat tokitan soluziñue topau badauie, herritxik urrinketie ez dot uste hain gatxa izango zenik. Batu gaitxezen gurekiko be sentsibilitate hori eskatzeko, ostantzien txapel moduan ifiñiko doskue autopistioi eta.*

Fermin Lezeta

**HEMEN ZURE  
PUBLIZITATEA**

**URRESTILLA**

**TABERNA**

**Tfnoa.: 714809**

**Giro ona berandurarte**





GOIKO ILARAN: Jose Luis Gonzalez, ..., Pascual Gutierrez.  
 ERDIKO ILARAN: Martin Bastarrika, Florita Uribetxeberria, umea ...,  
 ..., Carmen Armendariz, Jacinto Azkarate  
 BEHEKO ILARAN: ..., Carmen Lazkano, Mari Lezeta, ...

**OHARRA:**

Ze Barri?ren aurreko alean (11.alean) ateratako argazkian agertzen ziren pertsona batzuk ezagutu barik utzi genituen. Jakin dugenez honako hauek ziren guztiak:

**Dantzariak**

Joakin Armendariz (Ubide)

Edorta Alegria

Jacinto Azkarate

**Neska**

Mercedes Etxebarria (Pedriñena)

**VILLAR** APAINDEGIA

**Tfnoa.: 715042.**